En el caso de reducciones de jornada por cuidado de hijos e hijas o de personas en situación de dependencia se podrán computar, a petición de la entidad solicitante, las jornadas de estas personas sin tener en cuenta la reducción.





e) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak. Era berean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis artikulua arabera (aurrerantzean, 38/2003 Legea), 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetan, eskatzaileak merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeari (aurrerantzean, 3/2004 Legea) lotutako irabazi-asmorik gabeko zuzenbide publikoko erakundeez bestelako pertsona fisikoak edo juridikoak badira, ordainketa-epeak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute, artikulua horretan xedatutako baldintzetan. Enpresa hornitzaileari aldez aurretik kobratzea ahalbidetzen dion finantzaketa oro baliozkotzat joko da apartatu hau betetzeari dagokionez, baldin eta haren kostua bezeroaren kontura bada eta, ordaindu ezean, hornitzailearengana jotzeko aukerarik gabe egiten bada. Baldintza hori betetzen dela eskabidea aurkezten den unean egiaztatuko da, eta egiaztatu ezean, zuzentzeko errekerimendua egingo da.

f) Ez egotea Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretak batean ere).

Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, emakidak eta ordainketak egiten

e) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones. Asimismo, de acuerdo al artículo 13.3 bis de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (en adelante Ley 38/2003), para subvenciones de importe superior a 30.000,00 euros cuando las personas solicitantes sean personas físicas y jurídicas, distintas de las entidades de derecho público, con ánimo de lucro sujetas a la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales (en adelante Ley 3/2004), deberán acreditar cumplir, en los términos dispuestos en ese artículo, los plazos de pago. Cualquier financiación que permita el cobro anticipado de la empresa proveedora se considerará válida a efectos del cumplimiento de este apartado, siempre y cuando su coste corra a cargo del cliente y se haga sin posibilidad de recurso al proveedor en caso de impago únicamente. La acreditación del cumplimiento de este requisito se realizará en el momento de presentar la solicitud y la falta de acreditación será objeto de requerimiento de subsanación.

f) No encontrarse incurso en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral (en adelante Norma Foral 5/2005).

Todos los requisitos deberán cumplirse a fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, mantenerse





diren unera arte mantendu. Aurrekotik salbuetsita dago d) baldintza; hori eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean bete beharko da. Aurrekotik salbuetsita ere badago 5/2005 Foru Arauaren 12.2.b artikuluan ezarritako debekua, salbu eta konkurtso-likidazioaren fasea ireki dela aitortu bada; hori eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean eta emakida egiten den unera arte mantendu beharko baitira.

hasta el momento de la concesión y los pagos. Se exceptúa de lo anterior el requisito d) que deberá cumplirse a fecha de presentación de finalización del plazo de presentación de solicitudes. Se exceptúa de lo anterior, también, la prohibición establecida en el artículo 12.2.b de la Norma Foral 5/2005 salvo en el caso en que se haya declarado la apertura de la fase de liquidación concursal, que deberá cumplirse a fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes y mantenerse hasta el momento de la concesión.

3. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:

3. No podrán concurrir a la presente convocatoria, ni resultar beneficiarias:

a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan (aurrerantzean 1/2023 Legegintzak Dekretua) adierazitako egoeretako batean dauden pertsona fisiko eta juridikoak, publikoak zein pribatuak.

a) Las personas físicas y jurídicas, públicas o privadas, que están en alguna de las situaciones indicadas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres (en adelante Norma Foral 4/2018) y en alguna de las indicadas en el artículo 23.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres (en adelante Decreto Legislativo 1/2023).

b) Pertsona fisikoak eta juridikoak, publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik (aurrerantzean 15/2022 Legea).

b) Las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas sancionadas por resolución administrativa firme por alguna de las infracciones calificadas como muy graves, en los términos y plazos previstos en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y la no discriminación (en adelante Ley 15/2022).

c) Sozietate publikoak eta zuzenbide

c) Las Sociedades Públicas y Entidades de





publikoko erakundeak.

Derecho Público.

d) Ondasun-erkidegoak.

d) Las comunidades de bienes.

e) Sozietate zibilak.

e) Las sociedades civiles.

f) elkarteak, fundazioak, federazioak, partidu politikoak eta erlijio erakundeak.

f) Las asociaciones, fundaciones, federaciones, partidos políticos y entidades religiosas.

g) Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpkoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela, laguntza hori berreskuratzeko agindu baten menpe dauden pertsonak edo erakundeak.

g) Las personas o entidades que estén sujetas a una orden de recuperación de ayudas pendiente tras una decisión previa de la Comisión Europea que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado interior.

h) Sektore hauetakoren batean jarduerak egiten dituztenak: arrantzako eta akuikulturako produktuen eta nekazaritzako produktuen lehen mailako ekoizpena, eraldaketa eta merkaturatzea, 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (UE) Batzordearen Erregelamenduaren 1.1.a), b), c) eta d) artikuluan aurreikusitako kasuetan. Erregelamendu hori minimis laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzkoa da.

h) Quienes desarrollen actividades en alguno de los siguientes sectores: producción primaria, transformación y comercialización de productos de la pesca y de la acuicultura y de productos agrícolas; en los casos previstos en el artículo 1.1.a), b) c) y d) del Reglamento (UE) 2023/2831, de la Comisión, de 13 de diciembre de 2023, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis.

i) Jarduera armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketaren arloan egiten dutenek, 14/2007 Legeak, 2007ko abenduaren 28koak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

i) Quienes desarrollen actividad en los ámbitos de producción, comercialización y financiación de armamento, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 14/2007, de 28 de diciembre, de Carta de Justicia y Solidaridad con los países empobrecidos.

4. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

Base 4. *Hecho subvencionable.*

1. Honako hauek joko dira diruz laguntzeko egitatzat: erakundearen lehiakortasuna

1. Tendrá la consideración de hecho subvencionable las actuaciones orientadas





edozein arlotan (prozesua, produktua, antolaketa, parte-hartzea, merkatua, jabetzaren babesa) berrikuntza proiektuen bidez hobetzea helburu duten jarduerak eta inbertsio aurreratuak, baldin eta erakundearen negozio-ereduarekin koherenteak badira eta eragin handia badute.

2. Diruz lagundu ahal diren proiektuek barnean hartu ahal dituzten ekintzen xedeak hauek izan ahal dira:

a) Produktu edo zerbitzu berriak diseinatzea edo garatzea, edo lehendik zeuden produktuen prestazioak hobetzea, merkatuan txertatu ahal izateko.

b) Negozio-eredua aldatzea balio erantsi handiagoa duten elementuen salmentara bideratzeko, «zerbitzazioa» barne (produktuen salmenta produktua + zerbitzua binomiora eboluzionatzea da zerbitzazioa).

c) Berrikuntza, merkatu berrietara irekitzeko eta produktu eta zerbitzuak merkaturatzeko bide berriak sortzeko.

d) Ekoizpen prozesuetan berrikuntzak txertatzea, edo existitzen den beste baten etapetako batean hobekuntza nabarmenak sartzea.

e) Enpresaren lehiatzeko posizioa nabarmen hobetzen duten eta teknologikoki aurreratuak diren industri enpresen ekoizpeneko ekipamenduak modernizatu, hobetu eta zabaltzeko inbertsioak.

a mejorar la competitividad de la entidad solicitante mediante proyectos de innovación en cualquier área de la entidad (proceso, producto, organización, participación, mercado, protección de la propiedad...) e inversiones avanzadas, coherentes con el modelo de negocio de la entidad y con alto impacto.

2. Los proyectos subvencionables podrán contener, entre otras, acciones para:

a) El diseño o desarrollo de nuevos productos o servicios, o mejoras sustanciales en las prestaciones de los ya existentes, para su incorporación a mercado.

b) La transformación del modelo de negocio para orientarse a la venta de elementos de mayor valor añadido, incluyendo la “servitización” entendida como la evolución desde la venta de producto hacia el binomio producto + servicio.

c) La innovación para apertura a nuevos mercados y generación de nuevas vías de comercialización de los productos y servicios.

d) La introducción de novedades en sus procesos productivos o mejoras sustanciales en alguna de las etapas de procesos existentes.

e) Las inversiones para la modernización, mejora y ampliación de equipamientos productivos de las empresas industriales que mejoren significativamente la posición competitiva de la empresa y sean tecnológicamente avanzadas





f) Antolakuntzaren eraldaketa, pertsonen eta taldeen protagonismoan oinarrituta, antolakuntzaren eta erakundea kudeatzeko moduen aldaketa-prozesu baten bitartez, hala erakundeko pertsonen modu zabal eta anitzean parte hartzen duten proiektu horien gogoeta eta abiarazte prozesuetan.

g) Europako, nazioarteko edo atzerrian estatuko patenteen eskabideak aurkeztu eta izapidetzea, baita erabilgarritasun ereduak edo diseinuak ere (erkidegokoa, nazioartekoa edo atzerrian estatukoa).

h) Aurretik egindako azterlanak, enpresak lehiakortasuna handitzeko tresna gisa eskuratzeko, betiere, proiektua berritzailea bada enpresarentzat.

3. Diruz lagunduko dira, halaber, lankidetzan egindako berrikuntza-proiektuak, baldin eta programaren onuradun izateko 3. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituen enpresa batek gutxienez parte hartzen badu. Lankidetzako berrikuntza-proiektuetan, enpresa eskatzaileak garatutako jarduerak baino ez dira diruz laguntzeko modukoak, eta hark gauzatutako jarduerak eta proiektuak berarengan duen eragina soilik kontuan hartuta ebaluatuko da. Beraz, eskabideak eskatzaileak garatu beharreko jarduerak eta horrek eragindako gastuak bakarrik jaso beharko ditu. Lankidetzako berrikuntza-proiektu batean 3. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituzten bi enpresak edo gehiagok parte hartzen dutenean, dirulaguntza eskatu nahi duen enpresa

f) La transformación organizacional basada en el protagonismo de las personas y los equipos, a través un proceso de cambio organizativo y en las maneras de gestionar la organización que suponga una participación amplia y plural de las personas de la organización en los procesos de reflexión y puesta en práctica de estos proyectos.

g) La presentación y tramitación de solicitudes de patentes europea, internacional o nacional en el extranjero, de modelos de utilidad o de diseño comunitario internacional o nacional en el extranjero.

h) Los estudios previos para el análisis de la adquisición de empresas como herramienta para aumentar la competitividad, siempre que el proyecto suponga una innovación para la empresa.

3. Son subvencionables también los proyectos de innovación en colaboración en los que tome parte al menos una empresa que cumpla las condiciones establecidas en la base 3 para ser beneficiaria del programa. En los proyectos de innovación en colaboración constituye hecho subvencionable únicamente las actividades desarrolladas por la empresa solicitante y se evaluará considerando únicamente las actividades ejecutadas por ésta y el efecto del proyecto sobre ella, por lo que la solicitud deberá recoger únicamente las actividades a desarrollar por la solicitante y los gastos en que ésta incurre. Cuando en un proyecto de innovación en colaboración tomen parte dos o más empresas que cumplen con las condiciones establecidas en la base 3, cada empresa que desee





bakoitzak eskabide independente bat aurkeztu beharko du, garatutako jarduerak eta egindako gastuak jasoko dituen.

solicitar subvención deberá presentar una solicitud independiente, que recoja las actividades desarrolladas y los gastos incurridos por ella.

4. Ez dira diruz lagun daitekeen egitatearen barruan hartuko aurkeztutako proiektuaren zati nuklearrari guztiz uztartuta ez dauden edo harekin lotura gutxi edo loturarik ez duten jarduketak. Era berean, ez dira diruz lagundu daitekeen egitatearen barruan hartuko oinarri honen arabera diruz lagundu daitekeen egitatea izan ezin diren aurkeztutako proiektuko jarduketak. Ondorioz, eskabideak ebaluatzeko, proiektuaren barruan diruz lagundu daitezkeen jarduketak bakarrik hartuko dira kontuan.

4. No se considerarán parte integrante del hecho subvencionable las actuaciones que no estén plenamente vinculadas a la parte nuclear del proyecto presentado o que resulten inconexas o periféricas a ella. Tampoco se consideran parte integrante del hecho subvencionable las actuaciones del proyecto presentado que no puedan constituir hecho subvencionable conforme a la presente base. Consecuentemente, las solicitudes serán evaluadas considerando únicamente las actuaciones dentro del proyecto que sí puedan considerarse hecho subvencionable.

5. Dirulaguntza jasoko duten proiektuak eskabidea egin duen enpresan aplikatu eta ezartzeko modukoa izango da, enpresa bera izango da onuraduna eta bere jarduerarekiko koherentzia mantenduko da, eta soilik hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat Bizkaiko Lurralde Historikoko ekoizpen zentroetan zuzenean aplikatzeko diren jardueren gastuak..

5. Los proyectos objeto de subvención deberán ser de aplicación e implementación en la entidad solicitante, residiendo el beneficio de los mismos en la propia entidad y manteniendo, además la coherencia con el objeto de su actividad, considerándose subvencionables sólo los gastos de actividades con aplicación directa en los centros del Territorio Histórico de Bizkaia.

6. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jarduera.

6. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el art. 3.1 del Decreto Legislativo 1/2023.

7. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluan arauhauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen

7. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad o cumplimiento de finalidad que atente, aliente o tolere practicas calificadas como infracciones en el Título IV de la Ley





jarduera edo xede betetzea.

15/2022.

8. Honako proiektu hauek ez dira diruz lagunduko:

8. No se considerarán como hecho subvencionable los siguientes proyectos:

a) Eranskinean jasotako epigrafeen barruan dagoen enpresaren jardueraren bati zuzenean lotuta ez dauden proiektuak.

a) Proyectos que no estén directamente vinculados a alguna de las actividades de la empresa que esté encuadrada dentro de los epígrafes recogidos en el Anexo.

b) Erakundearentzat berrikuntzarik ekartzen ez duten proiektuak.

b) Proyectos que no supongan una novedad para la entidad.

c) Enpresa digitalizatzeko proiektuak eta ingurumen-berrikuntzako proiektuak.

c) Proyectos de digitalización de la empresa y proyectos de innovación ambiental.

d) Produktuaren birdefinizio estetikoa edo industri konplexutasunik gabeko aldaketa, markaren kudeaketa edo nortasun korporatiboaren kudeaketa beste helbururik ez duten proiektuak.

d) Proyectos que supongan una simple redefinición estética del producto, modificación del producto sin complejidad industrial, gestión de la marca o identidad corporativa.

e) Produktuen aldaketa errepikarietatik ondorioztatutako proiektuak.

e) Proyectos derivados de modificaciones recurrentes en productos.

f) Bezeroarentzat produktu bakarra diseinatzeko proiektuak garatzea (neurrira egindako makinak eta ekipamenduak, «erabiltzeko prest» proiektuak...), erabilitako teknologiaren aurreko aplikazioei dagokienez, nabarmen ezberdina eta berritzailea den zatia izan ezik, garapen-kostua ezin zaionean aplikatu salmenta-prezioari.

f) Desarrollo de proyectos de producto único para cliente (máquinas y equipos a medida, proyectos “llave en mano”...) excepto en la parte que sea nítidamente diferencial e innovadora respecto a aplicaciones anteriores de la tecnología utilizada y cuyo coste de desarrollo no sea aplicable al precio de venta.

g) Enpresa nazioartekotzeko proiektuak.

g) Proyectos de internacionalización de la empresa.

h) Kalitate kontrolari lotutako proiektuak, eta produktuak egokitzea merkatuak edo aplikatu beharreko arauak ezarritako berariazko betekizunetara.

h) Proyectos relativos al control de calidad, así como la adaptación de productos a los requisitos específicos impuestos por el mercado o por la normativa que le sean de





aplicación.

i) «Funtsezko ikerketa» edo «Industria ikerketa» egiteko proiektuak, 651/2014 (EB) Erregelamenduan jasotako definizioarekin bat etorrira.

i) Proyectos de “Investigación fundamental” o “Investigación industrial” de acuerdo a la definición recogida en el Reglamento (UE) 651/2014.

j) Plangintzarako pakete informatikoak (ERP, CRM, GMAO, etab. gisakoak) garatzeko proiektuak.

j) Proyectos destinados a implementar paquetes informáticos de planificación (tipo ERP, CRM, GMAO, etc...).

k) Plan estrategikoak, merkataritza-planak edo antzekoak eta haien berrikuspenak idazteko aholkularitza.

k) El asesoramiento para la redacción de planes estratégicos, planes comerciales o similares y sus sucesivas revisiones.

l) Produktuaren bizi-zikloari buruzko azterketak.

l) Estudios del ciclo de vida del producto.

m) Edozein ziurtagiri lortzeko ekintzak.

m) Acciones destinadas a cualquier tipo de certificación.

n) Azoketara joatea, katalogoak, web orriak eta merkatuaren azterketak.

n) Asistencia a ferias, catálogos, páginas web y estudios de mercado.

o) Kudeaketa-sistemen ezarpena.

o) Implantación de sistemas de gestión.

p) Defentsa legalak, eta beste erakunde fisiko edo juridiko batzuek patentearen eskabideari, erabilgarritasun ereduari edo diseinuari aurkeztutako alegazioen erantzunak edo aurkakotasunak.

p) Defensas legales y respuestas a las alegaciones u oposiciones de otras entidades físicas o jurídicas a la solicitud de la patente, modelo de utilidad o diseño.

q) Bizkaiko Lurralde Historikoko zentroetan aplikatu ezin diren proiektuak.

q) Proyectos que no sean de aplicación en un centro del Territorio Histórico de Bizkaia.

r) Definizioan (argitasuna, plangintza, egikaritzeko metodologia...) edo proiektuari esleitutako baliabideetan (baliabide teknikoak, giza taldea, zuzkidura ekonomikoa...) gabezia argiak dauzkaten proiektuak.

r) Proyectos que presenten deficiencias nítidas en su definición (claridad, planificación, metodología de ejecución...) o en los recursos asignados al proyecto (medios técnicos, equipo humano, dotación económica...).





s) Bizkaiko Foru Aldundiaren bestelako programa edo jarduketa arloen barruan sar daitezkeen jarduerak. Zehazki, ez dira diruz lagungarritzat hartuko ondoko programa hauetan diruz lagun daitezkeen jarduerak: Trantsizio Digitala, Trantsizio Berdea, Bizkaia Sortzailea, Innobideak-Kudeabide, Bide-azpiegituretan Berrikuntza Sustatzea eta Enpresa Berritzaileak Sortzea.

s) Las actividades que puedan estar comprendidas dentro de otros planes, programas o áreas de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia. En concreto, no se considerarán subvencionables las actuaciones que puedan ser hecho subvencionable dentro de los programas Transición Digital, Transición Verde, Bizkaia Creativa, Innobideak-Kudeabide, Promoción de la Innovación en las Infraestructuras Viarias y Creación de Empresas Innovadoras.

5. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastuak, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira:

2. Honakoak izango dira diruz lagun daitezkeen gastuak, adierazitako kategorietan:

a) Proiektuari zuzenean lotuta dauden kanpoko gastuak, diruz lagundu ezin diren gastutzat adierazita daudenak izan ezik.

b) Ibilgetuko inbertsioek jasoko dituzte dirulaguntzak, Kontabilitateko Plan Orokorraren kategoria hauetan:

206. Aplikazio informatikoak

212. Instalazio teknikoak

Base 5. *Gastos subvencionables.*

1. Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, se hayan ejecutado en plazo, sean necesarios y respondan a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad.

2. Se considerarán subvencionables los siguientes costes, en las categorías indicadas:

a) Gastos externos directamente vinculados al proyecto, excepto los indicados como gastos no subvencionables.

b) Inversiones en inmovilizado, dentro de las categorías del Plan General de Contabilidad siguientes:

206 Aplicaciones informáticas

212 Instalaciones técnicas





213 Makinak

213 Maquinaria

214 Erreminteria

214 Utillajes

215. Beste instalazio batzuk

215 Otras instalaciones

217. Informazio prozesuetarako ekipak

217 Equipos para procesos de información

Ondasuna eskuratzeko gastuak lagundu ahalko dira diruz.

Se considerarán subvencionables los gastos de adquisición del bien.

Dirulaguntza jaso dezakete leasing modalitatearen bidez eskuratutako aktibo finkoetako inbertsioek, betiere kontratuan ondasuna eskuratzeko konpromisoa jasotzen bada. Kasu horietan, ondasuna eskuratzeko erabilitako zenbatekoa soilik joko da diruz lagundu daitekeen gastutzat, eta ez dira inola ere onartuko finantza-errentamenduaren kontratuko baldintzak direla-bide aplikatzen diren finantza-gastuak eta komisioak.

Serán subvencionables las inversiones de activos materiales adquiridos mediante la modalidad de leasing, siempre y cuando el contrato incluya un compromiso para la adquisición final del bien. En esos casos, sólo se considerará subvencionable el importe correspondiente a la adquisición del bien y en ningún caso se admitirán los gastos financieros y las comisiones que apliquen en virtud de las condiciones del contrato de arrendamiento financiero.

Inbertsioetarako dirulaguntza jasotzeko, inbertsioek enpresen lehiatze-posizioa nabarmen hobetzeko balio behar dute eta teknologikoki aurreratuak izan behar dute. Horretaz gain, inbertsioen helburu diren ondasunek baldintza hauek bete behar dituzte:

Para ser consideradas subvencionables las inversiones deberán mejorar significativamente la posición competitiva de la empresa y ser tecnológicamente avanzadas, y los bienes objeto de las mismas deberán:

1) lehenengoz erabiltzea edo abian jartzea.

1.º entrar en uso o en funcionamiento por primera vez;

2) enpresaren aktiboan gutxienez 5 urtez jarraitzea, faktura-dataz gero zenbatzen hasita.

2.º permanecer como mínimo 5 años en el activo de la empresa a partir de la fecha de la factura;

3) hirugarrenei alokatuta nahiz lagata ez egotea, kontraprestazioarekin zein kontraprestaziorik gabe.

3.º no hallarse alquilados ni cedidos a terceros, con o sin contraprestación;





c) Aurkeztutako proiektuak iraun bitartean, proiektua burutzeko lanari dagozkion barneko langileria-gastuak. Kontzeptu horren barruan sartuko dira soilik soldata gordina eta gizarte kargak (Gizarte Segurantzaren) erakunde eskatzaileari eragiten dizkieten langileriaren gastuak.

c) Gastos internos del personal destinado al proyecto, en lo que se refiere a trabajo dedicado al proyecto presentado durante el tiempo que éste dure. Se entenderán en este concepto aquellos que correspondan a los gastos directos de personal por salario bruto y cargas sociales por cuenta de la entidad solicitante (Seguridad Social).

Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

El cálculo del coste horario de cada persona se realizará del siguiente modo:

$$\frac{\text{G.S.K.O.} \times 12 \times 1,25}{\text{Urteko ordu kopurua}}$$

$$\frac{\text{B.C.S.S.} \times 12 \times 1,25}{\text{Nº horas anuales}}$$

Non:

Dónde:

1) G.S.K.O. gertaera arruntak direla-eta langileak Gizarte Segurantzari egin beharreko hileko kotizazio-oinarria da, esleitu beharreko laguntza kalkulatzeko eskaera egin aurreko bi hilabeteetako bateko edo justifikatutako laguntza kalkulatzeko justifikazioa bidali aurreko bi hilabeteetako bateko Langile Izendun Zerrendaren (LIZ) edo, langile autonomoak badira, Kotizazio-Oinarrien Txostenaren (KOT) arabera. Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsonen dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da eta ez du inola ere gaindituko erregimen orokorrean indarrean dagoen gehieneko kotizazio-oinarria.

1.º B.C.S.S. es la base mensual de cotización por contingencias comunes de la persona trabajadora a la Seguridad Social según la Relación Nominal de Trabajadores/as (RNT) o Informe de Bases de Cotización (IBC), en el caso de tratarse de trabajadores autónomos, de alguno de los dos meses inmediatamente anteriores al de fecha de solicitud para el cálculo de la ayuda a adjudicar y al de la fecha de justificación para el cálculo de la ayuda justificada. En el caso de personas adscritas a otros regímenes de cotización se tomará una base asimilada a la del régimen general de la Seguridad Social, que no superará en ningún caso la base de cotización máxima vigente en el régimen general.

2) Urteko ordu kopurua langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea kontuan hartuta, halakorik egonez gero. Besterik adierazi ezean urteko

2.º Nº de horas anuales es el número de horas laborales anuales de la persona trabajadora, según convenio, afectado en cada caso por el porcentaje de reducción de jornada correspondiente si la hubiere. Por





1.720 orduko hartuko dira.

Diruz laguntzeko oinarria kalkulatzeko, gehienez 3 pertsona hartuko dira kontuan 5 eta 50 langile bitarteko enpresen kasuan, eta 5 pertsona gehienez 50 langile baino gehiagoko enpresen kasuan.

Nolanahi ere, ez du gaindituko 120 orduko kopurua proiektuko eta hileko 5 eta 50 langile bitarteko enpresen kasuan, ezta ere 240 orduko kopurua proiektuko eta hileko, 50 langile baino gehiagoko enpresen kasuan. Esleipenaren unean, dagoeneko egikaritutako ordu onargarrien kopurua kalkulatzeko, muga horiek aplikatuko zaizkio proiektua hasi zenetik eskaera aurkeztu zen egunera arte igarotako aldiari. Era berean, aurreikusitako ordu onargarrien kopurua kalkulatzeko, muga horiek aplikatuko zaizkio eskaera egin zenetik proiektua amaitu arte igarotako aldiari.

Justifikazioan, esleipen-unean onar zitekeen gehieneko ordu-kopuru bera onartuko da, proiektuaren epeen aldaketak gorabehera.

3. Honako hauek ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko:

a) Dirulaguntzaren xedea den jarduerarekin inolako inola ere identifikatu ezin diren gastuak.

b) 1.000 € (BEZa kenduta) baino gutxiagoko gastuen frogagiriak sortzen dituzten kanpoko gastuak edo kanpoko inbertsioak.

defecto se aplicarán 1.720 horas anuales.

Para el cálculo de la base subvencionable se considerará un máximo de 3 personas en el caso de empresas de entre 5 y 50 personas y un máximo de 6 para empresas con una plantilla superior a 50 personas.

En cualquier caso, el cómputo horario admitido en concepto de gastos internos no excederá de 120 horas por proyecto y mes en el caso de las empresas entre 5 y 50 personas, ni de 240 horas por proyecto y mes para empresas con una plantilla superior a 50 personas. En el momento de la adjudicación el número de horas ya ejecutadas admisibles será el resultado de aplicar estos límites al periodo transcurrido desde la fecha de inicio del proyecto hasta la fecha de presentación de la solicitud. De igual modo, el número de horas previstas admisibles será el resultado de aplicar estos límites al periodo transcurrido desde la fecha de solicitud hasta la fecha de finalización del proyecto.

En la justificación se admitirá el mismo número de horas máximo que fuese admisible en el momento de adjudicación, independiente de las modificaciones en los plazos del proyecto.

3. No se considerarán gastos subvencionables:

a) Los gastos que no puedan identificarse inequívocamente con la actividad objeto de la subvención.

b) Gastos externos o inversiones externas que generen documentos justificativos de gastos inferiores a 1.000 € unitarios (IVA no





Salbuespen gisa, beste gastu batzuk onartuko dira, baldin eta haien sortzapean edo ordainketa epetan edo erlotan zatitua bada, eta adierazitako zenbatekoa baino gutxiagoko justifikazio-agiriak sortzen badituzte; horretaz gain, seriean zehar trazabilitate argia egon behar da, dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren kontzeptu berari lotutako kopurua osoa 1.000 euro edo gehiago dela egiaztatzea ahalbidetzeko.

c) Zergak eta tasak, BEZa barne (BEZa berreskuratu ezin den kasuetan ere bai), eta jabetza industrial babesteko prozesuei lotutako tasak kanpo utzita.

d) Zeharkako gastuak.

e) Gastu orokor osagarriak, adibidez administrazio gastuak, dietak, kontsumo orokorrak (energia, ura, mezulariak, posta, garbiketa, telefonia, segurtasuna, bulegoko materiala...).

f) Bidaien, otorduen eta mantenuaren gastuak.

g) Aktibo finkoak alokatzeko gastuak.

h) Garraio elementuak.

i) Lokalen pintaketa, alikatatua eta egokitzea.

j) Plangintzako informatikako paketeak (ERP, CRM, GMAD... motakoak).

k) Edozein kudeaketa-sistema ezartzeko gastuak.

l) Defentsa legalak, eta beste erakunde

includido). Excepcionalmente, podrán admitirse gastos cuyo devengo o pago se haya fraccionado en plazos o lotes que generen documentos justificativos de importe inferior al indicado, siempre y cuando exista una trazabilidad clara e inequívoca a lo largo de la serie que permita comprobar que el importe total asociado a un mismo concepto de gasto subvencionable es superior o igual a 1.000 €.

c) Impuestos y tasas, incluyendo el IVA (incluso en los casos en los que éste no pueda ser recuperado) y excluyendo las tasas ligadas a los procesos de protección de la propiedad industrial.

d) Gastos indirectos.

e) Gastos generales suplementarios tales como gastos de administración, dietas, consumos generales (energía, agua, mensajería, correo, limpieza, telefonía, seguridad, material de oficina...).

f) Gastos de viajes, comidas y manutención.

g) Gastos de alquiler de activos fijos.

h) Elementos de transporte.

i) Pintado, alicatado y acondicionamiento de locales.

j) Paquetes informáticos de planificación (tipo ERP, CRM, GMAO...).

k) Gastos por implantación de cualquier sistema de gestión.

l) Gastos por defensas legales y respuestas





fisiko edo juridiko batzuek patentearen eskabideari, erabilgarritasun ereduari edo diseinuari aurkeztutako alegazioen erantzunak edo aurkakotasunak sortutako gastuak.

m) Jabetza industrialaren bulegoetako urteko ordainketak.

n) Beste finantza-gastu batzuk, besteak beste, komisioak edo kapital sozialari egindako ekarpenak, diruz lagun daitezkeen gastutzat jasotzen ez direnak.

o) Teknologikoki aurreratuak ez diren inbertsioak, hau da, eskatzailearen sektore ekonomikoan oso hedatuta dauden makinak eta ekipamenduak, argi eta garbi bereizgarriak diren elementurik gabe. Inbertsio batek ez du elementu bereizgarririk izango sektorean erabilera komuna duen teknologia batekiko, baldin eta bereizketa hori hornitzaileek eskaintzen dituzten ereduak berritzeagatik makinaren prestazioetan pixkanaka aurrera egiteagatik eta disruptiboa ez izateagatik bada.

p) Inbertsio teknologikoki aurreratueterako obrak, hartuneak, instalazioak edo ekipo osagarriak.

q) Hornitzailea nor izango den adierazten ez duten gastuak edo inbertsioak.

r) Merkataritza-eragiketetan egindako gastuak, baldin eta sektoreko araudi aplikagarrian aurreikusitako ordainketa-epeak bete gabe ordaindu badira, edo, halakorik ezean, 3/2004 Legean ezarritakoak bete gabe.

a las alegaciones u oposiciones de otras entidades físicas o jurídicas a la solicitud de la patente, modelo de utilidad o diseño.

m) Anualidades ante las Oficinas de propiedad industrial.

n) Otros gastos financieros, incluyendo comisiones, aportaciones a capital social..., distintos de los señalados expresamente como gastos subvencionables.

o) Inversiones que no sean tecnológicamente avanzadas, entendiendo como tales la maquinaria y equipamiento de aplicación ampliamente extendida en el sector económico de la solicitante, sin elementos claramente diferenciales. No se considerará que una inversión tiene elementos diferenciales respecto a una tecnología de uso común en el sector cuando la diferenciación sea únicamente por el avance progresivo y no disruptivo en las prestaciones de la maquinaria por la renovación de los modelos ofrecidos por los proveedores.

p) Obras, acometidas, instalaciones o equipos auxiliares para las inversiones tecnológicamente avanzadas realizadas.

q) Gastos o inversiones en los que no se indique un potencial proveedor previsto.

r) Los gastos en los que hayan incurrido en sus operaciones comerciales que se hayan abonado incumpliendo los plazos de pago previstos en la normativa sectorial que resulte de aplicación, o, en su defecto, en los establecidos en la Ley 3/2004.





s) Ez dira diruz lagunduko hirugarrenei egindako enkarguen ondoriozko gastuak, azpikontratazioari buruzko 27. oinarrian xedatutakoaren arabera azpikontrataziotzat jotzen badira.

4. Ondasun inbentariagarriak, baldin eta osorik edo zati batean dirulaguntzen bidez eskuratu, eraiki, birgaitu edo hobetu badira, dirulaguntzaren xede zehatzerako erabili beharko dira, gutxienez bost urtez erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunetan, eta bi urtez gainerakoetan.

5. Ekonomia Sustatzeko Sailak uste badu gastuen zenbatekoa antzeko gastuen batez besteko kostuarekin alderatu eta gehiegizkoa dela, dirulaguntzaren oinarria zehatzu ahal izango du 34/2010 Dekretuaren 72.1 artikuluan ezarritako baliabideak aplikatuz kalkulatzeko den zenbatekoan. Arrazoitzeari, jakinarazteari eta Perituen tasazio kontraesankorra sustatzeari dagokionez, 34/2010 Dekretuaren 72. eta 73. artikuluetan adierazitakoa hartuko da kontuan.

6. Dena dela, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean 9/2017 Legea) kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak (40.000 eurotik beherakoa, obra-kontratuak badira eta 15.000 eurotik beherakoa, hornitze- edo zerbitzu-kontratuak badira) gaintitzen dituenean, onuradunak Sektore Publikoko Kontratuen Legea bete behar badu, justifikatu egin

s) No serán subvencionables los gastos derivados de encargos a terceras personas que se consideren subcontratación de acuerdo a lo dispuesto en la base 27. dedicada a la subcontratación.

4. Los bienes inventariables cuya adquisición, construcción, rehabilitación o mejora se hubiera realizado, en todo o en parte, mediante subvenciones habrán de destinarse al fin concreto para el que se concedió la subvención durante un plazo que no será inferior a cinco años en los bienes inscribibles en un registro público y a dos años en los restantes.

5. Si el Departamento de Promoción Económica considera que el importe de cualquier gasto es excesivo en comparación con el coste medio de gastos de análoga naturaleza, podrá fijar la base subvencionable en la cuantía que se determine aplicando los medios establecidos en el artículo 72.1 del Decreto 34/2010. En lo relativo a la motivación, notificación y promoción de tasación pericial contradictoria se estará a lo que indican los artículos 72 y 73 del Decreto 34/2010.

6. Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector público (en adelante Ley 9/2017), para el contrato menor (40.000 euros para contratos de obras y 15.000 euros cuando se trate de contratos de suministro o de servicios), la persona beneficiaria deberá, en el supuesto de estar sujeta a la ley de contratos del sector público, justificar el cumplimiento de





beharko du araudi horretan xedatutaka betetzen duela. Bestela, gutxienez, hiru hornitzaile ezberdinen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

7. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.

8. Diruz lagun daitezkeen gastuaren balorazioa euroa ez den beste txanpon bat erabiliz eginez gero, fakturaren ordainketa datan egingo da eurorako trukea.

9. Eskabidea egiten den unean gauzatu gabe dauden kanpoko gastuak eta 15.000 euro edo gehiagokoak badira (BEZik gabe) kasu honetan baino ez dira diruz lagun daitezkeen gastutzat joko: laguntza eskatzeko dokumentazioarekin batera gastu horri ezarritako zenbatekoa justifikatzen duen eskaintza, kontratua edo faktura aurkezten bada.

10. 25. oinarrian ezarritako burutzeko epearen barruan (2025eko urtarrilaren 1aren eta 2027ko ekainaren 30aren bitartean, biak barne) sortutako eta fakturatutako gastuak lagundu ahalko dira diruz, beti ere 26. oinarrian ezarritako

dicha normativa. En otro supuesto, deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

7. La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

8. La valoración del gasto subvencionable en moneda distinta al euro se convertirá a éste al tipo de cambio de la fecha de pago de la factura.

9. Los gastos externos aún no ejecutados en el momento de la solicitud y cuyo importe sea superior o igual a 15.000 € (IVA no incluido) sólo se considerarán gastos subvencionables cuando junto a la documentación de la solicitud de ayuda se entregue oferta, contrato o factura del gasto que justifique el importe asignado a dicho gasto.

10. Se consideran subvencionables los gastos que estén devengados y facturados dentro del periodo de ejecución establecido en la base 25 (1 de enero de 2025 y hasta el 30 de junio de 2027) y abonados hasta la fecha de finalización del plazo de





justifikatzeko epearen azken egunera arte (gauzatzeko epea bukatzen denetik hilabete bat (1)) ordainduta badaude. Kanpoko gastuen gauzatze datari dagokionez fakturazio data hartuko da erreferentzia gisa sortzeari buruzko kontabilitate-printzipioa urratzen ez badu.

justificación establecido en la base 26 (un (1) mes a contar desde la finalización del plazo de ejecución). En lo relativo a la fecha de ejecución de los costes externos se tomará como referencia la fecha de factura siempre y cuando no vulnere el principio contable de devengo.

6. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.*

Base 6. *Cuantía individualizada de las ayudas.*

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatu da ondoko portzentaje hauek diruz lagun daitezkeen gastuei aplikatuz, lortutako balorazioaren arabera eta kostu motaren arabera:

Kategoria	Laguntzaren gehieneko %a	
	35-60 puntu	>60 puntu
Kanpoko gastuak	30%	40%
Aktibo finkoetako inbertsioa	8%	15%
Barneko langileria-gastuak	30%	40%

1. El importe de las ayudas se obtendrá de la aplicación de los siguientes porcentajes, en función de la valoración obtenida, sobre la base de gasto que se considere subvencionable de cada categoría de coste:

Categoría	% máximo de ayuda	
	35-60 puntos	>60 puntos
Gastos externos	30%	40%
Inversión en inmovilizado	8%	15%
Gastos internos de personal	30%	40%

2. Lankidetzako berrikuntza-proiektuen kasuan, laguntzaren intentsitateak % 10 handituko dira gastu-kategoria bakoitzean.

2. En el caso de proyectos de innovación en colaboración las intensidades de la ayuda se incrementarán en un 10% en cada categoría de gasto.

3. Erakunde eskatzaile bakoitzeko, lagundutako proiektu bakoitzean 120.000 euro emango dira gehienez. Era berean, proiektu bakoitzean, barneko gastuengatik gehieneko dirulaguntza 25.000 eurokoa izango da.

3. Las ayudas otorgadas por entidad solicitante en cada uno de los proyectos apoyados, no superarán los 120.000 euros. Igualmente, en cada proyecto, el máximo de ayuda por gastos internos de personal será de 25.000 euros.





4. Ez da 6.000 eurotik beherako dirulaguntzarik emango. Muga hori ez da aplikatuko laguntzaren azken zenbatekoa 30. eta 31. oinarrietan ezarritako laguntzen metaketa eta bateragarritasun irizpideen ondorioz egindako murrizketa baten emaitza bada, edo erabilgarri dagoen kreditua agortu delako egin den murrizketa baten ondorio bada.

5. Jarduketa burutzeko unea zein ere den, laguntza aurrekontuko ekitaldi bati edo hainbati esleitu ahalko zaie.

4. No se concederán ayudas inferiores a 6.000 euros. Este límite no será de aplicación cuando el importe final de la ayuda sea resultado de una reducción por aplicación de los criterios de acumulación y compatibilidad de ayudas establecidos en las bases 30 y 31 o cuando sea debida al agotamiento de la disponibilidad presupuestaria.

5. Independientemente del momento en el que se desarrolle la actuación, se podrá adjudicar la ayuda contra uno o varios ejercicios presupuestarios.

7. oinarria. Aurrekontuko zuzkidura.

1. Deialdi honetan eman daitezkeen laguntzak eta onurak, guztira 6.000.000,00 euro, jarraian zerrendatuko diren aurrekontu-partiden kontura ordainduko dira; ondoren adierazten diren estimatutako kopuruetan banakatuko dira, eta haien muga partida bakoitzean ezarritako guztizko kopurua izango da:

Urtekoa	Aurrekontuko partida	Zenbatekoa
2026	0802/G/426107/74300 2016/0055	3.000.000,00
2027	0802/G/426107/74300 2016/0055	3.000.000,00

Base 7. Dotación presupuestaria.

1. Las ayudas y beneficios que puedan otorgarse en la presente convocatoria, por un importe total de 6.000.000,00 euros, se efectuarán con cargo a las partidas presupuestarias, que se relacionan a continuación, desglosadas en las siguientes cantidades estimadas, teniendo como límite la cantidad total establecida en las diferentes partidas:

Anualidad	Partida presupuestaria	Importe
2026	0802/G/426107/74300 2016/0055	3.000.000,00
2027	0802/G/426107/74300 2016/0055	3.000.000,00

2. Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorrari buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Legearen testu bategina onartzen

2. Al amparo de lo establecido en el artículo 56 del Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el





duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen 56. artikuluan xedatutakoaren babesean, dekretu hau aurretiaz izapidetzen da, eta, horrenbestez, deialdi honetan ageri den gehieneko zenbatekoa gutxi gorabeherakoa da. Ondorioz, dirulaguntzak emateko, beharrezkoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea eskabideak ebazten direnean.

3. Deialdi honetan ageri den gehieneko zenbatekoa gutxi gorabeherakoa da eta, beraz, 5/2005 Foru Araua garatzeko dirulaguntzen erregelamendua onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren (aurrerantz 34/2010 Foru Dekretua) 41.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen aldatu ahal izango dira aurrekontu-kredituak, Gobernu Kontseiluak onetsitako foru-dekretu baten bidez, kontuan izanda zein den, aurreikuspenen arabera, eskatutako dirulaguntzen zenbateko osoa. Hala eginez gero, eskabideak aurkezteko epea luzatu behar izango da.

4. 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurrekontu zuzkiduraren zenbateko osoa gehienez ere zenbateko osagarri honekin handitu ahalko da 2.000.000,00 euroak:

a) Zenbateko osagarria dagoenean eta zenbateko hori deialdi batzuentzat aurreikusitako zenbateko txikiagorekin ebatzitako aurreko deialdietatik datorrenean.

b) Emandako dirulaguntzak baino

texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, el presente decreto foral se tramita anticipadamente, por lo cual la cuantía total máxima que figura en esta convocatoria tiene carácter estimado. En consecuencia, se hace constar que la concesión de subvenciones queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de la resolución de concesión.

3. La cuantía total máxima que figura en esta convocatoria tiene carácter estimado, por lo que en aplicación de lo establecido en el artículo 41.2 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 (en adelante Decreto Foral 34/2010), los créditos presupuestarios podrán ser modificados antes de que se finalice el plazo de presentación de solicitudes, mediante decreto foral aprobado en Consejo de Gobierno, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas previstas; debiéndose, en su caso, ampliar el plazo de presentación de solicitudes.

4. Al amparo de lo establecido en el artículo 43 del Decreto Foral 34/2010, la cuantía total de la dotación presupuestaria podrá ser ampliada en un importe adicional máximo de 2.000.000,00 euros:

a) Cuando exista cuantía adicional proveniente de convocatorias anteriores resueltas por importe inferior al previsto para las mismas.

b) Cuando se hayan reconocido o liquidado





zenbateko txikiagoengatik aurreko deialdietatik eratorritako betebeharrak aitortu edo likidatu direnean.

c) 5/2006 Foru Arauaren testu bateginaren 69.2 artikulua arabera transferentzia adostu daitekeen kredituak daudenean.

d) Honakoak onetsi direlako eskuragarri dauden kreditu handitzea dagoenean:

1) Kreditu handitzeak.

2) Kredituak sortzea.

3) Kredituak sartzea.

Zenbateko osagarriaren eraginkortasuna kreditu eskuragarritasun deklarazioaren baldintzapean egongo da; deklarazioa dirulaguntzaren emakida ebatzi aurretik egin beharko da. Handitze hori organo emaileak baimenduko du eta eskuragarri dauden kredituen deklarazioa argitaratu beharko du emakida ebazpenaren aurretik deialdiaren bitarteko berberetan. Gainera, publizitateak ez du esan nahi eskari berriak aurkezteko epea irekiko denik, ezta ere ebazteko epe berria hasiko denik.

4. Los gastos se justificarán con facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, aportados en los formatos que permitan su presentación a través de la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica.

5. Para el cálculo de la subvención los costes se distribuirán en tres categorías: gastos internos del personal destinado al proyecto, inversiones en inmovilizado y gastos externos directamente vinculados al proyecto, conforme a lo descrito en la base 5.2. Si en el momento de la justificación del proyecto se observa que el importe total admisible en alguna de las categorías de coste recogidas en las presentes bases es inferior al importe admitido para el cálculo de la subvención, se podrá compensar mediante desviaciones al alza en otras categorías con un incremento máximo del 20% sobre el importe adjudicado en cada categoría, siempre y cuando esté debidamente justificado documentalmente, con la limitación de no superar la





ezarritako gastu-kategoria eta -tipologia bakoitzeko gehieneko dirulaguntza ez gainditzea. Kostu-kategoria bakoitzari dagozkion laguntza-portzentajeen arabera kalkulaturako dirulaguntzatik justifikatu beharreko zenbatekoari dagokionez, guztira emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo gehiago justifikatu behar da. Bestela, ez-betetzearen ondoriozko prozedura hasiko da.

subvención máxima por cada categoría y tipología de gasto establecida en las presentes bases. El importe de la subvención total justificada calculada atendiendo a los porcentajes de ayuda correspondientes a cada categoría de coste deberá ser igual o superior a la subvención otorgada. En caso contrario se tramitará el correspondiente procedimiento de incumplimiento.

29. oinarria. *Dirulaguntza ordaintzea.*

Base 29. *Pago de la subvención.*

1. Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, onuradunak justifikatu ondoren eman zen jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu dela, oinarri hauetan ezarritako moduan eta justifikatutako zenbatekoan. Gehienez ere bi (2) ordainketa egingo dira.

1. El abono de la subvención se realizará previa justificación, por la persona beneficiaria, de la realización de la actividad, proyecto, objetivo o adopción del comportamiento para el que se concedió en los términos establecidos en las presentes bases y por el importe justificado. Se efectuará un máximo de dos (2) pagos.

2. Erakunde onuradunei egiten zaizkien ordainketak diruz lagun daitezkeen gastutat jotzen diren justifikatutako gastuen proportzionalak izango dira, urteko bakoitzean ematen diren kopuruak gorabehera. Kopuru hori aldi bakoitzean eman dena baino txikiagoa izan daiteke, eta, hala badagokio, egindako gastuaren proportzionala den dirulaguntzaren azken doikuntza egin behar da.

2. Los pagos a las entidades beneficiarias serán proporcionales a los gastos justificados considerados subvencionables, independientemente de los importes otorgados en cada anualidad, pudiendo ser menor de lo otorgado en cada periodo, y en su caso, realizando el ajuste final de la subvención proporcional al gasto realizado y debidamente justificado.

3. Bitarteko ordainketa, halakorik badago, konturako ordainketatzat hartuko da, eta ez da beharrezkoa izango bermea eratzea ordainketa egiteko.

3. El pago intermedio, si lo hubiere, se considerará pago a cuenta, sin que sea necesaria la constitución de garantía para su abono.

4. Dirulaguntza ordaindu baino lehenago, onuradunek zerga-betebeharrak eta

4. Antes de proceder al pago de la subvención se comprobará que las personas





Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela egiaztatuko da, eta ez daudela dirua itzultzera behartzen duen ebazpen prozedura baten ondorioz zordunen artean. Egiaztapen horren ondorioz, ikusten bada onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo itzultzeko ebazpen baten ondorioz zorduna bada, ezin izango da dirulaguntza ordaindu.

beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social y que no son deudoras por resolución de procedimiento de procedencia de reintegro. Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que la persona beneficiaria no se halla al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social o por resolución de procedimiento de procedencia de reintegro, no podrá realizarse el abono de la subvención.

5. Emandako dirulaguntza Beaz SAUren bidez ordainduko da, dirulaguntzaren eskabidean adierazitako kontu korrontera banku-transferentzia eginda.

5. La subvención concedida se abonará a través de Beaz S.A.U. mediante transferencia bancaria a la cuenta corriente que se haya designado en la solicitud de la subvención.

6. Dirulaguntza kobratzeko eskubideak ezin dira laga, 34/2010 Foru Dekretuaren 68.1 artikuluan jasotako kasua gertatzen ez bada eta dirulaguntza kobratzeko eskubideak pignoratzea baimentzen ez bada.

6. No se permite la cesión de los derechos de cobro de la subvención salvo que concurra el supuesto contemplado en el artículo 68.1 del Decreto Foral 34/2010 y no se permite la pignoración de los derechos de cobro de la subvención.

30. oinarria. *Laguntzak metatzea*

Base 30. *Acumulación de ayudas.*

1. Foru-dekretu honetan jasotako dirulaguntzek honako erregelamendu honetan xedaturikoa bete behar dute: Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua, 2023ko abenduaren 13koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

1. Las subvenciones contempladas en el presente decreto foral están sujetas a lo dispuesto en el Reglamento (UE) n.º 2023/2831 de la Comisión de 13 de diciembre de 2023, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis.

2. Ematen diren dirulaguntzak de minimis laguntzat hartuko dira. Emandakotzat

2. Las subvenciones que se concedan tendrán la consideración de ayudas minimis.





joko dira onuradunari dirulaguntza jasotzeko eskubide legala aitortzen zaion unean.

3. Pertsona onuradun batek jaso dezakeen de minimis laguntzen zenbateko osoa ezin da izan 300.000,00 eurotik gorakoa izan, hiru urteko edozein alditan.

4. Ez bada betetzen Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua, 2023ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa, horrek berekin ekar diezazkioke arau-hausleari erantzukizun penala, zibila eta administratiboa.

5. Foru-dekretu honen arabera emandako laguntzak beste de minimis laguntza batzuekin metatu ahal izango dira, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 Erregelamenduan (EB) ezarritako gehieneko mugaraino. Laguntza horiek ez dira Estatuko ezein laguntzarekin metatuko, diruz lagun daitezkeen gastu berei dagokienez, baldin eta metatze horrek gaintitu egiten baditu Batzordeak onarturiko kategorien arabera salbuespen-erregelamendu batek edo erabaki batek kasuan kasurako finkaturiko inguruabar zehatzetarako laguntza-intentsitatea edo gehieneko laguntzaren zenbatekoa.

Se entenderán concedidas en el momento que se reconozca a la persona beneficiaria el derecho legal a recibir la subvención.

3. La ayuda total de minimis que puede percibir una misma persona beneficiaria no podrá ser superior a 300.000,00 euros durante cualquier periodo de tres años.

4. El incumplimiento del Reglamento (UE) n.º 2023/2831 de la Comisión de 13 de diciembre de 2023, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis podría conllevar responsabilidad penal, civil y administrativa para la persona infractora.

5. Las ayudas concedidas con arreglo al presente Decreto foral podrán acumularse con otras ayudas de minimis hasta el límite máximo establecido en el Reglamento (UE) n.º 2023/2831, de 13 de diciembre de 2023, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis. Estas ayudas no se acumularán con ninguna ayuda estatal en relación con los mismos gastos subvencionables si dicha acumulación excediera de la intensidad de ayuda o del importe de ayudas superior correspondiente fijado en las circunstancias concretas de cada caso por un reglamento de exención por categorías o una decisión adoptados por la Comisión.





31. oinarria. *Laguntzen bateragarritasuna.*

1. Foru-dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziook edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten dirulaguntza, laguntza, dirusarrera edo baliabideekin, oinarri honetan eta laguntzen metaketari buruzko aurreko oinarrian finkatutako mugak bakarrik aintzat hartuta.

2. Hala ere, ez dira bateragarriak izango Bizkaiko Foru Aldundiak helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

3. Dirulaguntzen zenbatekoak, bera bakarrik edo beste dirulaguntza nahiz laguntzekin batera, ezin izango du, inola ere, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

4. Aurreko muga horietakoren bat gaindituz gero, emandako edo eman beharreko dirulaguntzari soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio.

5. Onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu dituztela jakinarazi beharko diote Ekonomia Sustatzeko Sailari, horren berri izan bezain laster eta, nolanahi ere, funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen, eta, hala badagokio, egindako itzulketa-gutunaren kopia erantsita. Hori guztia 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako,

Base 31. *Compatibilidad de las ayudas.*

1. Las subvenciones del presente decreto foral serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin más límites que los fijados en esta base y en la base anterior relativa a la acumulación de ayudas.

2. No obstante, no serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad concedidas por la Diputación Foral de Bizkaia.

3. El importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

4. En caso de superarse alguno de los límites anteriores la subvención a conceder o concedida se minorará en la cantidad que corresponda al exceso.

5. Las personas beneficiarias deberán comunicar al Departamento de Promoción Económica, tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas, acompañando copia de la carta de reintegro que, en su caso, hubiera realizado. Todo ello a los efectos previstos en el artículo 18.3 y 4





dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izateko eta, hala badagokio, itzulketa-prozedura hasteko.

de la Norma Foral 5/2005, de manera que pueda modificarse la resolución de la concesión de la subvención y, en su caso, iniciar el correspondiente procedimiento de reintegro.

6. Ekonomia Sustatzeko Saila harremanetan jarri ahal izango da gainerako finantzatzaileekin, kofinantzaketa-hitzarmen bat egin ahal izateko.

6. El órgano competente del Departamento de Promoción Económica podrá contactar con el resto de partes financiadoras para llegar a un acuerdo de cofinanciación.

32. oinarria. *Pertsona onuradunen beste betebeharrak.*

Base 32. *Otras obligaciones de las personas beneficiarias.*

Honako betebeharrak izango dituzte laguntzen onuradunek:

Las personas beneficiarias estarán obligadas a:

a) Dirulaguntza emateko arrazoi den helburu, proiektu, jarduera edo jokaera lortu, burutu, egin edo hartzea.

a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones.

b) Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren aurrean edo erakunde laguntzailearen aurrean justifikatzea betekizun eta baldintzak betetzen direla, hala badagokio, baita jarduera egin dela eta dirulaguntza emateko edo laguntzaz gozatu ahal izateko aintzat hartutako xedea bete dela ere.

b) Justificar ante la diputada foral de promoción económica o ante la entidad colaboradora, en su caso, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

c) Oinarri hauetan jasotako hedapen-neurriak hartzea, hau da, “*Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea*” izeneko oinarrian adierazitakoa betetzea.

c) Adoptar las medidas de difusión contenidas en las presentes bases, lo que supone cumplir con lo indicado en la base denominada “*Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria*”.

d) Aurrekontu ekitaldi batean Bizkaiko Foru Aldunditik gutxienez 100.000 eurokoak diren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeak edo urteko diru-

d) Las entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una





sarreraren %40 foru laguntzak edo dirulaguntza publikoak direnean, baldin eta gutxienez 5.000 eurokoak badira, bete egin beharko dituzte 1/2016 Foru Arauko publizitate aktiboaren betebeharrak. Hau da:

1) Aurretik aipatutako mugak gainditu eta hurrengo urtetik aurrera webgunean informazio publiko garrantzitsua argitaratzea modu irisgarrian, doan, egiaz, eguneratuta eta berrerabiltzeko moduan. Datu pertsonalak babestearen arloko legeria errespetatuko da eta euskaldunen hizkuntz eskubideak bermatuko dira. Horretarako, informazioa euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko da.

2) Informazioa eguneratuta mantentzea gutxienez lau urte naturaletan.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza koofizialak erabiltzea hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13.3 eta 13.4 artikuluetan ezarritakoarekin bat. Hau da:

1) Diruz lagundutako jarduera publiko guztietan bi hizkuntza koofizialak erabiltzea.

2) Diruz lagundutako jarduerarekin lotutako materialetan, argitalpenetan eta bestelako euskarrietan bi hizkuntza koofizialak erabiltzea.

f) Genero ikuspegia sartzea eta emakumeen

cuantía de 100.000 euros o cuando el 40% del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros, deberán cumplir las obligaciones de publicidad activa contenidas en la Norma Foral 1/2016, lo que supone:

1.º Publicar, a partir del año siguiente en el que se hayan superado los umbrales mencionados con anterioridad, información pública relevante en su página web de forma accesible, gratuita, veraz, actualizada y reutilizable. Se respetará la legislación en materia de protección de datos personales y se garantizarán los derechos lingüísticos de la ciudadanía vasca debiendo publicarse dicha información tanto en euskera como en castellano.

2.º Mantenerse publicada dicha información, debidamente actualizada, durante al menos cuatro años naturales.

e) Utilizar las dos lenguas cooficiales de la Comunidad Autónoma Vasca de acuerdo con lo establecido en el artículo 13.3 y 13.4 del Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales, lo que supone:

1.º Utilizar las dos lenguas cooficiales en todas las actividades públicas resultantes de la actividad subvencionada.

2.º Utilizar las dos lenguas cooficiales en los materiales, publicaciones o cualquier otro soporte utilizado relacionado con la actividad subvencionada.

f) Incorporar la perspectiva de género y





eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz. Horrek haxe esan nahi du:

1) Egiaztatzea jarduketetan bete egiten direla 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikuluan adierazitako printzipio orokorrak, egindako azterketa eta estatistiketan testu horren 17. artikuluan xedatutakoa betetzen dela eta zuzenean edo hirugarrenen bidez sortutako hizkuntza, irudi, euskarri eta dokumentuetan hizkuntza sexista erabiltzen ez dela egiaztatzea.

2) Egiaztatzea Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizio, sarbide, kontratazio eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonal, lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikal, ordezkaritza eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak sustatzen direla eta gardentasun eta ordainsari berdintasun printzipioa betetzen dela.

3) Egiaztatzea zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko

promover la igualdad de mujeres y hombres de acuerdo con lo establecido en el artículo 46 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres, lo que supone:

1.º Acreditar que en sus actuaciones se cumplen los principios generales señalados en el artículo 3 del Decreto Legislativo 1/2023, que en los estudios y estadísticas que realicen se cumple con lo dispuesto en el artículo 17 del citado texto y que se realiza un uso no sexista en todo tipo de lenguaje, imágenes, soportes y documentos que produzca directamente o a través de terceras personas.

2.º Acreditar que se promueve la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias y que se cumple con el principio de transparencia e igualdad retributiva.

3.º Acreditar que se vela porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la





zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jardura egiteko sortutako materialetan.

4) Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitako Berdintasun Plana edukitzera behartuta dauden erakundeek kasuan, plan hori badutela eta benetan aplikatzen dela egiaztatzea.

5) Egiaztatzea bermatzen dela neurriak hartuko dituela lan-arloan emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, hari aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatzeke eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko.

g) Kontabilitate liburuak, erregistroak eta gainerako agiriak egunean edukitzea –egin beharreko eginbide eta auditoriak eginda, alegia–, pertsona onuradunari kasu bakoitzean aplikatu beharreko merkataritza-legerian eta legeria sektorialean ezarritakoaren arabera, bai eta kontabilitate orri eta erregistro espezifiko guztiak edukitzea ere diruz lagundutako proiektuari dagozkion diru-sarrerak eta gastuak bereiz identifikatu ahal izateko, dela kontabilitateko sistema berezi baten bidez, dela proiektuarekin lotutako transakzio guztietarako kontabilitateko kode egoki bat esleitzuz, egiaztapen eta kontrol ahalmenen erabilera egokia bermatzeko.

h) Jasotako funtsen erabilera frogatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol

información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

4.º En el caso de entidades obligadas a disponer de un Plan de Igualdad previsto en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, acreditar que se dispone de dicho Plan, así como de su aplicación efectiva.

5.º Acreditar que se garantiza la adopción de medidas para prevenir, actuar, dar seguimiento, evaluar y erradicar la violencia machista en el ámbito laboral, y específicamente las relativas al acoso sexual y acoso por razón de sexo.

g) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable a la persona beneficiaria en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos que permitan la identificación separada de los ingresos y gastos correspondientes al proyecto subvencionado, bien mediante un sistema de contabilidad aparte bien asignando un código contable adecuado a todas las transacciones relacionadas con el proyecto, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

h) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en





ekintzetarako erabilgarriak izan daitezkeen neurrian.

i) Foru arau honen 33. artikuluan jasotako egoeretan jasotako funtsak itzultzea.

j) Baldin eta dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu diren inguruabar objektibo edo subjektiboetatik edozein aldatu bada, aldaketa horren berri ematea dirulaguntza eman dionari.

k) Foru Administrazioako organoek edo erakunde laguntzaileak eskatzen dieten laguntza eta dokumentazioa ematea, bai eta, Europar Batasuneko araudiaren arabera, finantza-kontrolako eginkizunak esleituta dituzten organoek ere. Horretarako, honako ahalmen hauek izango dituzte:

1) Egiaztatu beharreko agirietara, euskarri informatikoan dauden programa eta artxiboak barne, iristeko askatasuna.

2) Sarrera librea diruz lagundutako jarduera garatzen den edo dirulaguntzaren kargura finantzatutako eragiketen errealitatea eta erregulartasuna egiaztatzeko aukera ematen duten negozio-lokaletara eta gainerako establezimendu edo lekuetara.

3) Fakturak, agiri baliokideak edo ordezkioak eta eragiketei buruzko beste edozein agiri atxikitzea edo kopia eskuratzea, baldin eta horietan dirulaguntza behar ez bezala lortu, baliatu edo erabili izanaren zantzuak ondorioztatzen badira.

tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

i) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005.

j) Comunicar a la entidad concedente la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiera sido tomada en cuenta para la concesión de la subvención.

k) Prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida por los órganos de la Administración Foral o por la entidad colaboradora, así como a los órganos que, de acuerdo con la normativa comunitaria, tengan atribuidas funciones de control financiero, a cuyo fin tendrán las siguientes facultades:

1.º El libre acceso a la documentación objeto de comprobación, incluidos los programas y archivos en soportes informáticos.

2.º El libre acceso a los locales de negocio y demás establecimientos o lugares en que se desarrolle la actividad subvencionada o se permita verificar la realidad y regularidad de las operaciones financiadas con cargo a la subvención.

3.º La obtención de copia o la retención de las facturas, documentos equivalentes o sustitutivos y de cualquier otro documento relativo a las operaciones en las que se deduzcan indicios de la incorrecta obtención, disfrute o destino de la subvención.





4) Dirulaguntzak kobratu diren edo funtsak erabili diren finantza-erakundeetako banku-kontuetako informazioa eskuratzeko askatasuna.

4.º El libre acceso a información de las cuentas bancarias en las entidades financieras donde se pueda haber efectuado el cobro de las subvenciones o con cargo a las cuales se puedan haber realizado las disposiciones de los fondos.

Laguntza emateko eta dokumentazioa emateko betebeharrak hori betetzeari uko egitea erresistentziatzat, desenkusatzat, oztopotzat edo negatibotzat joko da, 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, hala badagokio, zehapenen kalterik gabe.

La negativa al cumplimiento de esta obligación de prestar colaboración y facilitar documentación se considerará resistencia, excusa, obstrucción o negativa a los efectos previstos en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, sin perjuicio de las sanciones que, en su caso, pudieran corresponder.

l) Emakumeen eta gizonen arteko genero berdintasunarekin lotutako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko jarduketak egitea eta justifikazio dokumentazioa ematea. Laguntzen ez bada eta dokumentazioa ematen ez bada, urratu egingo dira 5/2005 Foru Arauaren 33.1.f) artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako ezarritako betebeharrak.

l) Someterse a las actuaciones de comprobación del cumplimiento de las obligaciones relacionadas con la igualdad de género entre mujeres y hombres y facilitar la documentación justificativa. La negativa a prestar la colaboración y facilitar documentación se considerará incumplimiento de las obligaciones impuestas a los efectos de lo indicado en el artículo 33.1.f) de la Norma Foral 5/2005.

m) Deslokalizazioan ez erortzea. Enpresa deslokalizaziotzat jotzen da Enpresak deslokalizatzen direnean foru-sektore publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzko martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauak ezarritakoa, eta foru-dekretu honek arautzen dituen dirulaguntzei aplikatuko zaie foru-arau hori.

m) No incurrir en deslocalización empresarial, entendiendo por tal lo prevenido en la Norma Foral 7/2007, de 27 de marzo, de Recuperación de ayudas del Sector Público Foral en el supuesto de Deslocalizaciones Empresariales, que será aplicable a las subvenciones reguladas por el presente decreto foral.

n) Ekonomia Sustatzeko Sailaren jardueraren eragina ebaluatzeko, sail horrek enpresari proiektuak iraun bitartean zein proiektu amaitu eta osteko hiru (3) urteetan enpresaren bilakaera adierazten

n) Para la evaluación del impacto de la actividad del Departamento de Promoción Económica, éste podrá requerir a la empresa durante el proyecto y los tres (3) ejercicios posteriores a la finalización del





duen adierazle ekonomikoak eta enpleguari buruzko adierazleak nahiz proiektuak enpresan izandako eraginari buruzkoak aurkezteko eskatu ahal izango dio. Adierazle horiek aurkezteko epea, eskatzen zaizkion unean zehaztuko da.

mismo la aportación de indicadores económicos y de empleo de la evolución de la empresa y del impacto del proyecto en la misma, que deberá aportar en el plazo que se le especifique en el momento en el que le sea requerida.

33. oinarria. Onuradunaren subrogazioa eta eskatzailearen subrogazioa.

Base 33. Subrogación de la persona beneficiaria y subrogación de la persona solicitante.

1. Jarraian adierazten diren kasuetatik aparte ezin da subrogatu. Dirulaguntzaren onuradunaren kasuan subrogatu ahal izango da, administrazio-baimena eskatu eta lortu ondoren, honako kasu hauek gertatzen direnean:

1. Fuera de los casos que se indican a continuación no se permite la subrogación. Cabe subrogarse en la posición de la persona beneficiaria de la subvención, previa solicitud y obtención de autorización administrativa, cuando concurren los siguientes casos:

a) onuradunak parte hartzen duen enpresen bat-egite kasuetan. Era berean, dirulaguntzaren onuradunari eragiten dioten enpresen edo jarduera-adarren eraldaketa, zatiketa, ekarpen edo eskualdaketa kasuetan. Nolanahi ere, bakarrik subrogatu ahal izango da diruz lagundutako jarduera edo proiektua lotuta dagoen subrogatzailearen jardueraren zatia bere gain hartzen duen pertsona (fisiko edo juridikoa).

a) en los casos de fusión de empresas en los que participe la persona beneficiaria. Igualmente, en los supuestos de transformación, escisión, aportación o transmisión de empresas o ramas de actividad que afecte a la persona beneficiaria de la subvención. En todo caso solo podrá ser subrogada a la persona (física o jurídica) que asuma la parte de la actividad de la subrogante a la que esté ligada la actividad o proyecto subvencionado.

b) onuradunari aplikatu dakiokeen araudi sektorial batekin bat, dirulaguntzaren onuradunaren eskubide eta betebeharretan beste pertsona edo erakunde bat subrogatzen bada.

b) en los casos que de acuerdo con una normativa sectorial aplicable a la persona beneficiaria otra persona o entidad se subrogue en los derechos y obligaciones de la persona beneficiaria de la subvención.

2. Honelako kasuren bat gertatuz gero Ekonomia Sustatzeko diputatuari dirulaguntzaren onuradunaren lekuan

2. De concurrir alguno de estos supuestos deberá solicitarse a la diputada de Promoción Económica autorización para





subrogatzeko baimena eskatu beharko zaio eta, halakoetan, subrogatu nahi duen pertsonak edo erakundeak baldintza hauek bete eta egiaztatu beharko ditu:

a) ESEPEn inskribatuta egotea.

b) oinarri hauetan dirulaguntzaren onuradun izateko eskatzen diren betekizun guzti-guztiak betetzea.

c) 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritako debekuetan edo oinarri arautzaile hauetan adierazitako debekuetan sartuta ez egotea.

3. Baimen-eskaera sail honetako bulego birtualaren bidez aurkeztu beharko da, dirulaguntzaren onuradun izateko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpenarekin batera eta, era berean, oinarri honen 1. atalean ezarritako kasuren bat gertatzen dela egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera. Baimen-eskaera hori egin aurretik, subrogatu nahi den pertsonak ESEPEn inskribatuta egon beharko du (aurrez inskribatuta ez badago), aldez aurretik foru sail honen bulego birtualaren bidez behar besteko aurrerapenaz eskaera eginda.

4. Eskabidea akastuna bada eta zuzendu behar bada, 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, interesdunari hamar egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko eskatuko zaio, eta adieraziko zaio hala egin ezean, bidezko

subrogarse en la posición de la persona beneficiaría de la subvención debiendo persona o entidad que quiera subrogarse cumplir y acreditar los siguientes requisitos:

a) estar inscrita en el REPPE.

b) cumplir todos y cada uno de los requisitos exigidos en estas bases para adquirir la condición de persona beneficiaria de la subvención.

c) no estar incurso en ninguna de las prohibiciones que establece el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005 ni las indicadas en estas bases reguladoras.

3. La solicitud de autorización deberá presentarse a través de la oficina virtual de este departamento, acompañada de la declaración responsable de cumplimiento de los requisitos para obtener la condición de persona o entidad beneficiaria de la subvención y acompañado de la documentación acreditativa de que concurre alguno de los supuestos previstos en el apartado 1 de esta base. Con anterioridad a realizar esa solicitud de autorización la persona que se quiera subrogar deberá estar inscrita en el REPPE (si no estuviera inscrita) previa solicitud formulada a tal efecto con antelación suficiente a través de la oficina virtual de este departamento foral.

4. En caso de que la solicitud sea defectuosa y deba subsanarse, de acuerdo con lo previsto por el artículo 68.1 de la Ley 39/2015 se requerirá a la persona interesada para que, en un plazo de diez días hábiles, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de





ebazpena eman ondoren, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

5. Ekonomia Sustatzeko foru diputatua da ebazteko organo eskuduna, eta aurkeztutako eskaera erregistratzen den egunetik zenbatzen hasita gehienez hilabeteko (1) epea izango du ebazteko eta jakinarazteko. Epe hori igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertuko da.

6. Subrogazioa baimentzen edo ukatzen duen ebazpenean dirulaguntzaren instrukzio-zerbitzuak subrogazioa eragin duen kasuari buruz egindako azterketa jasoko da, bai eta oinarri honetan ezarritako betekizunak betetzeari buruzkoa ere.

7. Dirulaguntzaren onuradunaren posizioan subrogatzeko baimenik lortu ez bada, instrukzio-zerbitzuak egoera ebaluatuko du ez-betetze prozedura bat ofizioz hastea bidezkoa den ala ez zehazteko eta, hala badagokio, emandako dirulaguntzari aplikatu beharreko araudian aurreikusitakoaren arabera itzultzeko.

8. Subrogazioa dirulaguntza eman dela jakinarazi ondoren eskatzen bada, subrogazioa baimenduta ez da bidezkoa izango lehia-konkurrentzian dirulaguntzak ematea eragin zuten eskabideen lehentasun-hurrenkera berrikustea.

9. Dirulaguntza justifikatzeko, justifikazio-agiriak onartuko dira, bai erakunde

que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su solicitud, previa resolución correspondiente.

5. La diputada foral de promoción económica es el órgano competente para resolver y contará con un plazo máximo de un (1) mes desde la fecha de registro de la solicitud presentada para resolver y notificar, transcurrido el cual, sin haberse notificado resolución alguna, se entenderá desestimada la solicitud formulada por silencio administrativo.

6. La resolución que autorice o deniegue la subrogación contendrá el análisis que el servicio instructor de la subvención haya realizado sobre el supuesto que ha dado lugar a la subrogación, así como del cumplimiento de los requisitos establecidos en esta base.

7. En caso de que no se haya obtenido autorización para subrogarse en la posición de la persona beneficiaria de la subvención, el servicio instructor evaluará la situación al objeto de determinar la procedencia o no de iniciar de oficio un procedimiento de incumplimiento y, en su caso, de reintegro de acuerdo a lo previsto a la normativa aplicable a la subvención concedida.

8. Si la subrogación se solicita con posterioridad a que sea notificada la concesión de la subvención, autorizada la subrogación, no procederá revisar la prelación de solicitudes que dieron lugar al otorgamiento de las subvenciones en concurrencia competitiva.

9. Para la justificación de la subvención, se admitirán documentos justificativos tanto a





onuradunaren izenean, bai subrogatuaren izenean.

10. Subrogatutako pertsonak subrogazioa bere gain hartzeak berekin dakar dirulaguntzaren hasierako onuradunak bete behar zituen baldintza eta betebeharrak guztiak inplizituki onartzea. Ondorioz, subrogatutako pertsonak dirulaguntzaren hasieran onuradunari ezarritako baldintzak eta betebeharrak bete beharko ditu, eta foru-administrazio honi dagokionez arduraduna izango da ondorio guztietarako.

11. Dirulaguntzaren eskaera aurkeztu ondoren, baina deialdia ebatziko duen ebazpena eman aurretik, oinarri honetako 1. paragrafoan ezarritako egoerak gertatzen badira, aurreko ataletan ezarritako prozedura aplikatuko da, subrogatzeko baimena eskatzen den posizioan dirulaguntza bat eskatzen duen pertsonaren posizioan egotearen berezitasunarekin. Dirulaguntza eskatu duen pertsonaren posizioan subrogatzeko baimena ematen bada, ebaluazio batzordeak erakunde subrogatuaren ezaugarriak hartu beharko ditu kontuan norgehiagokako eskabideen lehentasun-hurrenkerari dagokionez eta, hala badagokio, subrogatzen den posizioan dagoen eskatzaileari emango litzaiokeen puntuazioa alda liteke baldin eta hasieran aurkeztutako eskabidearen balorazioan jatorriz dirulaguntza eskatu zuenak zituen ezaugarriak kontuan hartu badira.

12. Aurreko ataletan adierazitakoa ez da aplikatuko azkartasun-, ofiziozko hasiera-,

nombre de la entidad beneficiaria como de la subrogada.

10. La asunción de la subrogación por parte de la persona subrogada conlleva la aceptación implícita de todas las condiciones y obligaciones a que estaba sujeta la persona inicialmente beneficiaria de la subvención. En consecuencia, la persona subrogada deberá cumplir las condiciones y obligaciones establecidas a la persona inicialmente beneficiaria de la subvención y será la responsable ante esta administración foral, a todos los efectos.

11. De darse los supuestos previstos en el párrafo 1 de esta base en un momento posterior a la presentación de la solicitud de la subvención, pero anterior a dictarse la resolución que resuelva la convocatoria, será de aplicación el procedimiento previsto en los apartados anteriores con la particularidad que en la posición para que se pide autorización para subrogarse es en la posición de persona solicitante de una subvención. Para el caso de que se autorice subrogarse en la posición de persona solicitante de la subvención, la comisión evaluadora deberá tener en cuenta las características de la entidad subrogada a efectos de prelación de solicitudes en concurrencia competitiva, y podría modificarse la puntuación que en su caso se hubiera otorgado a la persona solicitante en cuya posición se subroga si en la valoración de la solicitud inicialmente presentada se han tenido en cuenta características que concurrían en la persona inicialmente solicitante de la subvención.

12. Lo indicado en los apartados anteriores no resultará aplicable a los supuestos en los





efikazia- eta efizientzia-printzipioak aplikatuz organo instruktoreak eskabidea formulatu duen, dokumentazioa bidali duen, instantzia formulatu duen edo izapidea bete duen pertsona interesduna behar bezala identifikatzen duenean, interesdun horren izenean edo interesdun horrek baimendutako laguntzaile gisa jarduten duten pertsonen behar bezala identifikatu ez badute eta betiere erregistratutako eskabidea, idazkia, instantzia eta/edo dokumentaziotik bertatik argi eta garbi eta oker egoteko aukerarik gabe ondorioztatzen bada, eta gerora interpretatu beharrik izan gabe, eskabidea, izapidea, instantzia eta/edo dokumentazio-bidalketa hori egiten duen edo betetzen duen interesduna egiaztatzen dela.

que aplicando los principios de celeridad, impulso de oficio, eficacia y eficiencia se proceda por el órgano instructor a identificar de manera correcta la persona interesada que ha formulado la solicitud, ha realizado la remisión de documentación, ha formulado la instancia o ha cumplimentado el trámite, para el caso de que las personas que actúen en nombre de esa persona interesada o como colaboradora autorizada por esa persona interesada no la hayan identificado correctamente siempre y cuando de la propia solicitud, escrito, instancia y/o documentación registrada se desprenda de manera clara, manifiesta e inequívoca y sin necesidad de ulteriores interpretaciones la persona interesada que realiza o cumple esa solicitud, trámite, instancia y/o envío de documentación.

ERANSKINA

Jarduera ekonomikoen zerrenda

3. oinarrian adierazitakoaren arabera, onuradun izateko, beste baldintza batzuen artean, enpresek EJSN – 2025eko epigrafe hauetakoren batean inskribatuta eduki behar dute euren jarduera ekonomikoetako bat. Halaber, 4. oinarriak adierazten du ez daitekeela diruz lagundu eranskin honetan jasotako epigrafeen barruan dagoen enpresaren jardueraren bati zuzenean lotuta ez dauden proiektuak.

B atala: Erauzketako industriak

C atala: Manufaktura-industria

D atala: Indar elektriko, gas, lurrun eta aire

ANEXO

Relación de actividades económicas

De acuerdo con lo indicado en la base 3, uno de los requisitos que deben cumplir las empresas para ser beneficiarias es que al menos una de sus actividades se halle encuadrada en alguno de los siguientes epígrafes de la CNAE – 2025. Así mismo, la base 4 indica que no serán subvencionables proyectos que no estén directamente vinculados a alguna de las actividades de la empresa que esté encuadrada dentro de los epígrafes recogidos en este anexo.

Sección B: Industrias extractivas

Sección C: Industria manufacturera

Sección D: Suministro de energía eléctrica,





girotuko hornitura

gas, vapor y aire acondicionado

E atala: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa

Sección E: Suministro de agua, actividades de saneamiento, gestión de residuos y descontaminación

F atala: Eraikuntza

Sección F: Construcción

G atala: Handizkako eta txikizkako merkataritza (multzo hau baino ez):

Sección G: Comercio al por mayor y al por menor (sólo la división señalada):

46. multzoa. Handizkako merkataritza.

División 46. Comercio al por mayor.

H atala: Garraioa eta biltegiatzea

Sección H: Transporte y almacenamiento

J atala: Edizio-, irati- eta produkzio-jarduerak eta edukien banaketa

Sección J: Actividades de edición, radiodifusión y producción y distribución de contenidos

K atala: Telekomunikazioak, programazio informatikoa, aholkularitza, azpiegitura informatikoa eta bestelako informazio-zerbitzuak

Sección K: Telecomunicaciones, programación informática, consultoría, infraestructura informática y otros servicios de información

N atala: Jarduera profesionalak, zientifiko eta teknikoak

Sección N: Actividades profesionales, científicas y técnicas

O atala: Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak (multzo hau izan ezik):

Sección O: Actividades administrativas y servicios auxiliares (excepto la división señalada):

80. multzoa. Segurtasun eta ikerketa jarduerak.

División 80. Actividades de seguridad e investigación

Q atala: Hezkuntza (multzo hau baino ez):

Sección Q: Educación (sólo la división señalada):

85.6. multzoa. Hezkuntzako jarduera lagungarriak

División 85.6. Actividades auxiliares a la educación

R atala: Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (multzo hauek baino ez):

Sección R: Actividades sanitarias y de servicios sociales (sólo las divisiones señaladas):





87. multzoa. Egoitzetako laguntza	División 87. Asistencia en establecimientos residenciales
88. multzoa. Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuetako jarduerak	División 88. Actividades de servicios sociales sin alojamiento
S atala: Arte, kirol eta denbora-pasako jarduerak (multzo eta talde hauek baino ez):	Sección S: Actividades artísticas, deportivas y de entretenimiento (sólo las divisiones y grupo señaladas):
90. multzoa: Sormen artistiko eta arte eszenikoetako jarduerak.	División 90: Actividades de creación artística y artes escénicas.
91. multzoa: Liburutegi, artxibategi eta museoetako jarduerak eta beste kultura jarduera batzuk	División 91: Actividades de bibliotecas, archivos, museos y otras actividades culturales
93.2 taldea: Beste aisialdi eta entretenimendu jarduera batzuk	Grupo 93.2: Otras actividades recreativas y de entretenimiento
T atala: Bestelako zerbitzuak (multzo hau baino ez):	Sección T: Otros servicios (sólo la división señalada):
95. multzoa. Ordenagailuak, gai pertsonalak eta etxeke tresnak, ibilgailu motordunak eta motozikletak konpontzea eta mantentzea	División 95. Reparación y mantenimiento de ordenadores, artículos personales y enseres domésticos y vehículos de motor y motocicletas

